Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Onartu
Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen (https://bidasoa.hitza.eus/cookieak/).




(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024015&ckid=5784961765964326159&uii=2489260915134311438&acd=1559632892813&pubid=15&tmstp=4892812895&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&systgt=%2
aste-arrisku-egoerei-aurre-egiten-ikasteko-dyaarekin%2f&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus)



# Bi aste arrisku egoerei aurre egiten ikasteko, DYA-arekin

(https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?u=https%3A%2F%2Fbidasoa.hitza.eus%2F2018%2F06%2F26%2Fbi-aste-arrisku-egoerei-aurre-egiten-ikasteko-dyaarekin%2F)

Hondarribia (https://bidasoa.hitza.eus/herriak/hondarribia/) Gizartea (https://bidasoa.hitza.eus/gaiak/gizartea/)

Sorosle eta sorospen ikastaroa emango du DYA Gipuzkoako uztailaren 9tik 20ra. Ez da beharrezkoa aldez aurretik gaian ezagutza izatea.

2018 (https://bidasoa.hitza.eus/2018/)/06 (https://bidasoa.hitza.eus/2018/06/)/26 (https://bidasoa.hitza.eus/2018/06/26)

Urko Etxebeste (https://bidasoa.hitza.eus/sinadurak/urko-etxebeste/)




(http://bidasoa.hitza.eus/2018/06/26/bi-aste-arrisku-egoerei-aurre-egiten-ikasteko-dyaarekin/dya-hondarribia/)

*Herritar orori zabalik dago ikastaroa.*

Hondarribian sorospen eta sorosle ikastaroa antolatu du **Gipuzkoako DYAk (http://www.dyagipuzkoa.com/eu/)**. Bi asteko iraupenak izango du, uztailaren 9tik 20ra arte. Bitarte horretan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara izango dira eskolak. Herritar orori zabalik dagoen ikastaroa da, eta ez da beharrezkoa aurretik arloan ezagutza izatea.

Egunerokotasunean aurki daitezkeen larrialdi egoerak kudeatzen jakiteko ikastaroa izango da. Bihotz eta birika suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak eta giza horretako ikasgaiak landuko dituzte izena ematen dutenekin. "Ezagupen oso arruntak dira, baina laguntza handia eman dezakete. Oso modu eta erosoan irakasten dira teoria eta praktika alderdiak uztartuz", adierazi dute DYAko kideek.

Ikastaro amaierako probak gainditzen dituztenek Gipuzkoako DYAk eskaintzen duen Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango dute.

**Matrikula eta izen ematea**
Matrikularen kostua 110 eurokoa da. Plazek muga dute, hortaz, komeni da izena ahalik eta azkarren ematea tokia izateko. Izena emateko 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.

**Hauteskundeak: M26 (https://bidasoa.hitza.eus/hauteskundeak/m26/**

| Udal hauteskundeak | Foru hauteskundeak | Europako hauteskundeak |
|---|---|---|

Herria aukeratu

Herri zerrenda

Tokiko informazioa profesionaltasunez eta euskaratik, modu librean kontatzea da gure eginkizuna. Horretarako zure ekarpena beharrezkoa da, eta ongi maitatzeko modurik zintzoena da HITZAkide egitea.

egin zaitez HITZAkide (https://bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan/)